



**ARABAKO LURRALDE HISTORIKO OSOA URTARO LIBREKO EREMU
IZENDATZEA, 2024ko ABENDUAREN 30ETIK AURRERA**

Joan den asteazkenean, urriak 30, baieztatu zen Oiartzungo (Gipuzkoa) ustiategi bateko ardi batek mihi urdinaren birusaren 8. serotipoa zuela.

Egoera horren aurrean, Euskal Autonomia Erkidego osoa, Nafarroako Foru Erkidegoa eta Zaragozako probintziako Ejea de Los Caballeros eta Sos del Rey Católico abeltzaintza-eskualdeak mihi urdinaren 8. serotipoaren eremu mugatu izendatu dira.

Eremu mugatuak baziren jadanik Huesca probintzia eta Katalunia osoa.

Joan den azaroaren 21ean baieztatu zen S8 mihi urdinaren birusa zegoela Zierbenan (Bizkaia)

Azaroaren 22an, Barrundiako udalerrian (Araba) S8 mihi urdinaren birusa zegoela susmatu zuten. Kasu honetan, kasua inportatutzat jo da eta EZ da birus-zirkulaziorik egon

EREMU MUGATU honetan, honako neurriak ezarri dira:

- Mingain urdinaren birusaren 8. serotipoaren aurkako DERRIGORREZKO TXERTAKETA ezartzea ardietan 2 hilabetetik gorako animaliak eta behi-espezietan 3 hilabetetik gorako animaliak. TXERTAKETA OFIZIALA da; beraz, datu-baseetan erregistratu behar da, eta lekualdatzeko dokumentuetan agertu.. ABERE ZERBITZU TEKNIKOAK enpresak egingo du, Arabako Lurralde Historikoko Animalien Osasunerako kontratuaren esleipendunak.
- Gaixotasunarekiko sentikorrek diren espezieen (behiak eta ardiak) MUGIMENDUEN MURRIZKETAK ezartzea

**ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA GUNE ESTAZIONALKI LIBRE IZENDATU DA
ABENDUAREN 30ETIK APIRILERA (zehaztu GABE)
MUGIMENDUEN MURRIZKETAK BERTAN BEHERA GERATUKO DIRA URTARO
LIBREKO EREMU IZENDAPENAK IRAUTEN DUEN BITARTEAN.**

Nota hau gaixotasunaren baldintza epidemiologikoak aldatzean eguneratuko da.

Gaixotasunari buruzko informazio gehiago aurkituko duzu orri honetan:

https://www.mapa.gob.es/es/ganaderia/temas/sanidad-animal-higiene-ganadera/sanidad-animal/enfermedades/lengua-azul/lengua_azul.aspx

Gasteiz 2024ko abenduaren 20a

ABELTZANTZA ZERBITZUA

Instalazioak eta garraibideak erregistratutako intsektiziden zerrenda:

https://www.mapa.gob.es/es/ganaderia/temas/sanidad-animal-higiene-ganadera/listainsecticidasregistradosmapa_la01082024_tcm30-650737.pdf

SYVAZUL BTV txertoaren Fitxa Teknikoa:

https://ec.europa.eu/health/documents/community-register/2022/20220603155924/anx_155924_es.pdf